



Haur, Nerabe eta Gazteen  
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de  
la Infancia, Adolescencia  
y Juventud

# Gure gurasoen lanak nahi al ditugu?

## Euskadiko gazteen iritziak 2025ean

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

**Edizioa:** 1.a, 2026ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila

**Egilea:**

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia


**Diseinua eta maketazioa:**

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia

**Oharra:** Argitalpen honen gaztelaniako bertsioa ere eskuragarri dago



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, Creative Commons-en lizentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (informazio gehiago: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)





# Edukiak

- Helburua eta metodologia
- Aitaren lan bera egin nahi izatea
- Aitaren lan bera egin nahi izateko arrazoiak
- Aitaren ogibidea lan-bizitza osoan bete nahi izatea
- Aitaren lan bera egin nahi ez izateko arrazoiak
- Amaren lan bera egin nahi izatea
- Amaren lan bera egin nahi izateko arrazoiak
- Amaren ogibidea lan-bizitza osoan bete nahi izatea
- Amaren lan bera egin nahi ez izateko arrazoiak
- Gehien errepikatu nahi diren lanen profila
- Gutxien errepikatu nahi diren lanen profila
- Ondorioak



# Helburua eta metodologia

## Ikerketaren helburua:

Euskadiko gazteek bere gurasoek egiten dituzten lanei buruz duten iritzia, lan horiek egitea gustatuko litzaieken edo ez litzaieken arrazoiak, bai eta ogibide horiek lan-bizitza osoan egiteko ikuspegia ere aztertzea.

## Metodologia:

2025eko abenduan bildu ziren datuak, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 2.727 gazteri egindako inkesta baten bidez. Horretarako norberak betetzeko online galdetegia erabili zen, bai eta telefono bidezko elkarrizketak ere egin ziren.

Oharra: inkestan aitaren eta amaren lanez galdetu da, nahiz eta dakigun gero eta familia aniztasun handiagoa dagoela eta gazte guztiek ez dutela aita eta ama bana.

## Datuen analisia:

Datuak sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera haztatu dira. Ikerketaren diseinuak eta analisiak emaitza esanguratsuak eta fidagarriak bermatzen dituzte,  $\pm$  % 1,9ko errore-marjinarekin.

## Ikerketaren diseinua, analisia eta emaitzen sintesia:

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia






## Aitaren lan bera egin nahi izatea

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 15,5ek bakarrik adierazi du asko edo nahikoa gustatuko litzaiokeela bere aitaren lan bera egitea. Beste % 27,7k azaldu du gutxi gustatuko litzaiokeela. Eta gazteriaren erdiari (% 50,5) ez litzaioke batere gustatuko.

Gutxi badira ere, gizonezko gazteek emakumezko gazteek baino neurri handiagoan adierazi dute gustatuko litzaiekeela (asko edo nahikoa) aitaren ogibidearekin jarraitzea (% 19,3 gizonezkoek eta % 11,4 emakumezkoek).



Oinarria: gazte guztiak

# Aitaren lan bera egin nahi izateko arrazoiak

Aitaren lan bera egin nahi izateko arrazoi nagusia lan hori gustatzen zaiela da (aitaren ogibide bera izatea asko edo nahikoa gustatuko litzaiekeela adierazi duten gazteen % 63,8k arrazoi hori argudiatu du).

Hurrengo arrazoi aipatuenak soldatarekin, egonkortasunarekin eta lan ordutegi eta egutegiarekin lotuta daude.

Esan beharra dago pertsona berak arrazoi bat baino gehiago eman zitzakeela (bere kasuan izandako guztiak).

Ia ez dago alderik aitaren ogibidea izan nahiko luketen emakume eta gizon gazteek adierazitako arrazoiaren artean. Emakumeek gizonen baino zertxobait gehiago aipatu dituzte egonkortasuna (% 49,3k eta % 45,0k, hurrenez hurren) eta lan-ordutegia eta egutegia (emakumeen % 43,6k eta gizonen % 39,7k). Aldiz, gizonen emakumeek baino gehixeago aipatu dute beren kabuz lan egiteko nahia (gizonen % 12,8k eta emakumeen % 8,4k).



Oinarria: aitaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaieken gazteak (% 15,5)




## Aitaren ogibidea lan-bizitza osoan bete nahi izatea

Aitaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaiekeela adierazi dutenen artean, erdiak baino gutxixeagok (% 47,2) esan du lan hori bere lan-bizitza osoan egin nahiko lukeela.

Lehen ikusi dugun bezala, gazteen % 15,5ek bakarrik nahi zuen aitaren lan bera izan; eta orain ikusten dugu gazteen % 7,4k bakarrik nahiko lukeela lan hori bere lan-bizitza osoan egin.

Emakumeen eta gizon gazteen artean ez da iritzi desberdintasunik ikusten.



Oinarria: aitaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaieken gazteak (% 15,5)




# Aitaren lan bera egin nahi ez izateko arrazoiak

Aitaren ogibidea izatea gutxi edo batere gustatuko ez litzaiekeen gazteek gehien aipatzen dituzten arrazoiak hauexek dira: ez dutela gustuko lan hori (% 63,5) eta beste lan-mota baterako prestatu direla (% 65,2).

Gainerako arrazoiak bere aita egiten duen lan bera egin nahi ez luketen gazteen laurden batek baino gutxiagok aipatu ditu.

Kasu honetan ere arrazoiak aukeratzeko askatasuna zegoen, erantzun-mugarik gabe.

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago aipatu dute ez dituztela gustuko horrelako lanak (aitaren ogibidea nahi ez dutenen % 67,5 eta % 62,7, hurrenez hurren), baina, batez ere, beste lan-mota batzuetarako prestatu direla (aitaren ogibidea nahiko ez luketen emakumeen % 68,8 eta gizonen % 58,1). Gizonek emakumeek baino neurri handixeagoan azaldu dute aitaren lana nahi ez dutela ordutegiagatik eta lan-egutegiagatik, soldatagatik eta telelana egiteko edota lana eta familia uztartzeko eskaintzen dituen aukera urriengatik (aldeak ehuneko bost puntu ingurukoak dira hiru kasuetan).



Oinarria: aitaren lan bera egitea gutxi edo batere gustatuko ez litzaiekeen gazteak (% 78,2)






## Amaren lan bera egin nahi izatea

Halaber, gutxi dira amaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaieken Euskadiko gazteak, % 18,0 bakarrik. Beste % 34,9k adierazi du gutxi gustatuko litzaiekeela amaren lana betetzea. Eta hamar gaztetik lauk (% 40,1) adierazi dute ez litzaiekeela batere gustatuko lan hori egitea

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago diote amaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaiekeela (emakumeen % 20,2k eta gizonen % 15,5ek).



Oinarria: gazte guztiak

# Amaren lan bera egin nahi izateko arrazoiak

Amaren lan bera egin nahi izateko gazteek gehien aipatzen duten arrazoiak lan hori gustatzen zaiela da (amaren ogibidea izatea asko edo nahikoa gustatuko litzaiekeela dioten gazteen % 62,4k adierazi du argudio hori).

Hurrengo arrazoi aipatuenak (% 40 eta % 50 arteko ehunekoekin) ordutegia eta lan-egutegia, egonkortasuna eta soldata dira.

Beren amek egiten duten lan bera egin nahiko luketenen laurdenak baino gehiagok honako arrazoi hauek ere adierazi dituzte: horretarako prestatu direla, lan horrek familia eta lana uztartzeko edo telelana egiteko aukerak ematen dituela, eta arriskurik gabeko lana dela.

Kasu honetan ere nahi beste arrazoi eman zitezkeen.

Emakume gazteek gizonak baino gehiago aipatu dute amaren lana gustatzen zaiela (% 68,5ek eta % 54,6k, hurrenez hurren) eta horretarako prestatu direla (% 33,1ek emakumeen artean eta % 29,7k gizonen artean). Gizonak emakumeek baino neurri handiagoan aipatu dute soldata edo diru-sarrerak (% 48,3k gizonen artean eta % 39,4k emakumeen artean). Egonkortasuna ere gehixeago aipatu dute gizonak (% 46,8k) emakumeek baino (% 42,6k). Kontuan izan aipatutako ehunekoak amaren ogibidea izatea gustatuko litzaiekeen gazteei dagozkiela.




Oinarria: amaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaieken gazteak (% 18,0)



## Amaren ogibidea lan-bizitza osoan bete nahi izatea

Beren amen lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaiekeela adierazi dutenen artean, erdiak baino gutxiago dira (% 45,4) lan-bizitza osoan lan hori egin nahiko luketela aitortu duten gazteak (gizon gazteek emakume gazteek baino zertxobait gehiago: % 48,2 eta % 43,1, hurrenez hurren).



Kalkulatzen badugu, aiten lanbideei dagokienez egin dugun bezala, gazte guztietatik zenbatek nahiko luketen beren amen lan bera beren lan-bizitza osoan egin, ikusten dugu % 8,2 baino ez dela.



# Amaren lan bera egin nahi ez izateko arrazoiak

Amaren ogibidea izatea gutxi edo batere gustatuko ez litzaiekeen gazteek gehien aipatu dituzten arrazoiak aitaren lana errepikatzea nahi ez izateko aipatutakoak dira: lan-mota hori ez zaiela gustatzen (% 59,9) eta beste lan-mota baterako prestatu direla (% 61,6).

Amaren ogibidea gustuko ez duten gazteen % 20 eta % 30 artean soldata, ordutegia edota lan-egutegia eta lan-karga, presioa edo estresa aipatu dituzte.

Galdera horrek ere erantzun ugari onartzen zituen, pertsona bakoitzak bere kasuan emandako arrazoi guztiak argudia zitzan.

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago adierazi dute beste lan-mota batzuetarako prestatu direla (amaren ogibidea gustuko ez duten emakumeen % 64,2k eta gizonen % 59,1ek). Beste arrazoi batzuk aipatu dituzten emakumeen eta gizonen portzentajeetan ez da alderik nabari.



Oinarria: amaren lan bera egitea gutxi edo batere gustatuko ez litzaiekeen gazteak (% 75,0)

# Gehien errepikatu nahi diren lanen profila

## Aiten ogibideak

- Autonomoa edo enpresaria
- Gerentea edo arduraduna
- Ingeniaria
- Irakaslea
- Funtzionarioa
- Suhiltzailea

Oinarria: aitaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaieken gazteak (% 15,5)



## Amen ogibideak

- Irakaslea
- Osasun arloko profesionala
- Administraria
- Funtzionarioa

Oinarria: amaren lan bera egitea asko edo nahikoa gustatuko litzaieken gazteak (% 18,0)

# Gutxien errepikatu nahi diren lanen profila

## Aiten ogibideak

- Fabrikako langilea
- Obretako langilea (igeltseroa, argiketaria, iturgina...)
- Mantentze-lanetako langilea
- Garraiolaria, gidaria
- Komertziala

Oinarria: aitaren lan bera egitea  
batere gustatuko ez litzaieken  
gazteak (% 50,5)



## Amen ogibideak

- Etxekoandrea
- Garbitzailea
- Jendearen aurrean merkataritzan
- Zerbitzaria, sukaldaria
- Administraria
- Zaintzailea, gerokultorea

Oinarria: amaren lan bera egitea  
batere gustatuko ez litzaieken  
gazteak (% 40,1)



# Ondorioak

Gazte gutxiak (% 20 baino gutxiagok) nahi dute gurasoen lan bera egin.

Genero rolek lan erreleboan irauten dute. Gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago diote aiten lana errepikatu nahiko luketela; aldiz, emakume gehiagok diote beren amen lan bera egin nahiko luketela.

Gurasoek egiten duten lan bera egin nahiko luketenek gehien aipatu duten arrazoia lan mota hori gustatzen zaiela da. Bigarrenik, beste alderdi batzuk ere aipatu dituzte, hala nola egonkortasuna, soldata eta ordutegia edota lan-egutegia.

Hala ere, pertsona horien artean ere erdiek ez lukete aukeratuko ogibide hori beren lan-bizitza osorako. Guztira, gazteen % 10ek baino gutxiagok nahiko luke bere lan-bizitza osoan aitzak edo amak egiten duen lan bera egitea.

Lan horiek egin nahi ez izateko arrazoi nagusiak hauek dira: ez dituztela gustuko lan horiek, eta beste lan mota batzuetarako trebatu edo prestatu direla.

Gazteei gehien gustatzen zaizkien lanak honako alderdi hauekin lotuta daude: gerentzia edo norberaren konturako lana (hau da, kudeaketa-, aginte- edo erantzukizun-lanpostuak, zure nagusia izatea), funtzionariotza (egonkortasunari eta soldata on bati lotua), hezkuntza (lan-egutegi ona dakarrena), osasuna, ingeniariotza, etab. (beste gogoeta batzuez gain, berez gazteentzat erakargarriak diren lanak).

Aldiz, gazteak gutxien erakartzen dituzten lanak tailerretan, obretan, garbiketan eta abarretan egindako eskulanak dira (normalean, fisikoki gogorragoak) edo saltokietan, salmentetan, ostalaritzan eta abarretan jendearentzako arretari lotutakoak.



